



Basque Standards for Self-Directed Support

www.selfdirectedsupport.org

Guztiok dugu askatasunez eta komunitatean guztiz inklusiboki bizitzeko eskubidea. Oinarrizko eskubide hauek 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean adierazi ziren. 2006ko Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Hitzarmenak azpimarratu zuen giza eskubideak pertsona guztiei aplikatzen zaizkiela, desgaitasuna edo gaixotasun kronikoa edozein dela ere. Guztiontzako giza eskubideak bermatzeko, pertsonaren autonomia maximizatzen duten sistemak antolatu behar ditugu, aukerak egiteko eta bere laguntzei buruzko kontrola erabiltzeko. Honako hauek dira autogidatutako laguntza sistema baten funtsezko elementuak

1. Dirua — Nik erabakitzen dut nola gastatu nire laguntzearako dirua.
2. Erabakiak — Ni naiz erabakiak hartzen dituen. Laguntza jaso dezaket erabakiak hartzeko.
3. Hezkuntza — Irakatsi iezadazu zer den norberak zuzendutako laguntza eta zer esan nahi duen.
4. Informazioa — Ziurtatu pertsona guztiek informazio argia jasotzen dugula. Hizkuntza desberdinetan eskuragarri egon behar du, eta kultura eta jatorri guztiak errespetatu.
5. Administrazioa — Nire laguntza planifikatzea eta antolatzea ahalik eta errazena izan behar da.
6. Plangintza — Erabili Pertsonen Zentratutako Plangintza nire etorkizuna eraikitzen laguntzeko.
7. Antolaketa — Lagundu langileak kontratatzen eta kudeatzen, eta nire aurrekontuaren jarraipena egiten. Laguntza honek doakoa izan behar du.
8. Familia eta lagunak — Eman nire familiari eta lagunei ni laguntzeko behar duten informazioa.
9. Langileak — Tratu zuzena eta errespetuzkoa eman laguntza-langileei. Ordaindu behar bezala.
10. Laguntza — Lagundu zein eskubide ditudan eta laguntza nola lortu jakiten. Laguntza hau esperientzia bizia duten pertsonen eman dezakete.
11. Justizia — Jasotzen dudana diru kopurua bidezkoa izan behar da. Nire plan eta beharretan oinarritua.
12. Kokapena — Beste eremu batera mugitzen banaiz, laguntza kopuru bera jasotzen jarraitzeko aukera izan behar dut.
13. Eskubideen defentsa — Eman iezadazu defentsa independentea nire eskubideak bermatzeko, erabakiak hartzeko eta abusutik babestuta izateko.
14. Kontrola — Nire zaintza eta laguntza kontrolatu ditzazket. Nire laguntzaren zenbat den norberak zuzendua aukeratu dezaket.
15. Kalitatea — Ziurtatu nire laguntza kalitate onekoa dela. Horrek nahi dudana bizitza eta behar dudana laguntza izatea esan nahi du.
16. Berdintasuna — Pertsona guztiek izan behar dute aukera: edozein genero, desgaitasun, jatorri etniko, sexu-orientazio edo erlijio-sinesmen dutenek.
17. Konfidantza — Sinetsi nigan. Sartu nazazu laguntza-sistemaren funtzionamenduari buruzko erabakietan.



CITIZEN NETWORK

FOR A WORLD WHERE EVERYONE MATTERS